



Frankenstein

Mary Shelley

Liburua ezin zitekeen hobeto aukeratuta egon Literatura Unibertsala bildumarako, eta itzulpena ezin zitekeen egon hobeto eginda. Nigatik balitz, 2014. urteko Euskadi Sariak-etarako proposatuko nuke, itzulpen atalean.

Lagun batek zera ohartarazi zidan: “Beharbada, narrazio etengabea gogaikarri samarra gertatuko zaizu azkenean”, baina inola ere ez. Aitzitik, gertaeren gaineko kontakizun etengabe horretan dago, hain zuzen, liburuaren xarma, benetako literatur balioa.

Liburuak badituela urte asko (Mary Shelley 1797an jaio eta 1851n hil zen) eta denboraren iragatea nabaritzen zaiola? Bada bai, baina horrek ez dio kalterik egiten, ez behintzat beste edozein garaitan –edo garai bertsuan– idatzitako beste edozein liburuk egin liezaiokeen baino kalte handiagoa. Gainera, horregatik da klasiko bat. Eta klasikoak izateak halako xarma berezi bat ematen dio, joandako garaietan pertsonak nolakoak ziren eta orduko gizarteak zerk kezkatzen zituen jakiteko eta irudikatzeko aukera ematen digunez gero.

Ba ote dago gehiegizko dramatismo bat, halako ukitu “oso” erromantiko bat eleberri unibertsal bikain honen planteamenduan? Bada bai, badago, eta ez da harritzekoa, Mary Shelley andrea Percy Bysshe Shelley olerkariarekin ezkondu baitzen; poeta erromantiko bat berau, eta gainera, oso harreman estua izan zuena... nor-eta Lord Byron-ekin! Frankenstein eleberria, hain zuzen, hiru pertsonaia hauek elkarrekin igarotzen zituzten gau-bilera haietako batean mamitu zen, 1816ko uda gogoangarri batean, Diodatin izeneko etxean, Genoatik hurbil.

Beraz, erromantizismoak Frankenstein eleberrian daukan eragina ez da justifikatzen oso zaila, horrelako aurrekariak tartean egonda.

Nolanahi ere, eta antzerkiaren laguntza estimagaitzarekin lehenik eta zinemaren laguntzarekin gero, literatur lan honek laster zabalpen eta arrakasta handiak lortu zituen, ikarazko eta fikziozko literaturaren benetako ikono bihurtzeraino.

Badaude une batzuk –desmasiazko uneak, ziur aski–, zeinetan deigarri gertatzen den Frankenstein munstroaren ahozko adierazmen landua, bai eta klasikoei buruz (Plutarko, Likurgo...) egiten dituen aipamen eruditua ere.

Baina Frankensteini den-dena barkatzen zaio. Azken batean, ez al ditu irudikatzen bai gizateria bai gizakion beldur existentzialak bai askotan gure aurka bihurrikatzen diren lorpen zientifikoak –Zientziaren Arbolari buruzko aipamen profetiko eterno hartan bezala...?

Esan dudanez, liburu aparta da, itzulpena bezain aparta. Literatura Unibertsala bilduman argitaratu beharreko liburuen hautapena egiten dutenek bikaintasun horixe erakutsi behar lukete beti. Nire ustez, 100. libururaino holaxe egin zuten, baina 100. aletik aurrera, nik esango nuke pixka bat denetik egon dela, garbiegi inoiz ikusi ez ditudan

ausazko irizpide zenbaiten arabera hautaturiko liburu batzuk barne. Nolanahi ere, Frankensteinek eta mota horretako urrezko aleek erraz berradiskidetzen gaituzte iraganean gerta zitezkeen nahaste-borraste(bakan)ekin –eta jakina, inoren borondate ona zalantzan jartzeko asmorik gabe esana!